BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

KIROLA: MENDIKO BIZIKLETA IBILALDIA DOMEKAN ESKORIATZAN /8

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urriaren 15a • IV. urtea

172. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

JUAN SANCHEZ VALLEJO / PSIKIATRA

"Buru gaixotasuna gero eta jende gehiagok du, gaur egungo bizimodu ereduak eraginda" /7

Goienka2a

'Ezetz lepoa jarri' komedia estreinatuko dute bihar Elgetan

BARRUAN GEHIGARRIA: UMEEN GAINEKO 8 ORRIKO ERANSKINA KOLORETAN

Ibarreko 43 talde Danbaka lehiaketan /4

- **Aitor Pedrejon** / Bergara
- **AK-47** / Bergara
- **Alberto Rodriguez** / Arrasate
- **Amonal** / Oñati
- **Azkaiter Pelox** / Bergara
- **Black Sheeps** / Bergara
- **Chicos Boom** / Arrasate
- **Denial** / Arrasate-Aretxabaleta
- **Desprezio** / Eskoriatza-Arrasate
- **Dixie 900** / Bergara
- **Dolce Vita** / Arrasate
- **Enboskada** / Arrasate
- **Gabero abesbatza** / Bergara
- **Harrikada** / Bergara
- **Iban** / Arrasate
- **Igor** / Aretxabaleta
- **Isarevolution** / Arrasate
- **Izaskun Ojanguren** / Elgeta
- **Jim TNT** / Arrasate
- **Klineks** / Eskoriatza
- **Lau** / Arrasate
- **Liken** / Aretxabaleta
- **Little little much** / Arrasate
- **Los Cretinos** / Arrasate
- **Lukas Prest** / Eskoriatza
- **Malenkonia** / Oñati
- **Matxura** / Elgeta-Soraluze
- **Muted** / Arrasate
- **N_OPH** / Arrasate
- **Neure baitan** / Arrasate
- **Ostiada Oi!** / Elgeta
- **Ozen** / Arrasate
- **Panoramix** / Arrasate
- **Potemkin** / Oñati
- **Sharon Stoner** / Oñati
- **Stukas** / Bergara
- **Supercools** / Bergara
- **The Heilin Tropek** / Eskoriatza
- **The Ruders** / Aretxabaleta
- **Turboamor** / Arrasate
- **X-At** / Bergara
- **Yotox** / Bergara
- **Zendu** / Arrasate

DANBAKA

Lagun Aroko 50.000 mutualista Osakidetzara

Eskualde Ospitale berria egin, edo dagoena handitu. Aukera baten edo bestearen aldeko apustua egin beharko da, lau urteko epean Debagoieneko Eskualde Ospitaleak beste 30.000 laguni eskaini beharko baitio zerbitzua. Dagoena berritzeak aukera gehiago ditu, baina oraindik ez dago ezer erabakita. /4

ASTEKO GAIA: AUTOETAKO PLAKAK, HIZPIDE

Matrikulak, erkidegoko ikurrarekin

Orain dela lau urteko eztabaidaren antzekoa piztu da egunotan; izan ere, orduan, autoen matrikuletatik lekuko zeinuak ezabatu zituzten eta Espainiako ikur bateratzailea ipini, eta orain, alderantziz, erkidego bakoitzeko ikurra gehitu nahi die Espainiako Gobernuak. Estatuko iritziek Debagoienean ere oihartzuna dute: ideologia alde batetik doa eta praktikotasuna, bestetik. /3

BERGARA

Hiru urteko kartzela zigorra ezarri diote Paulo Elkorori

Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean, beraren aurka Madrilgo Auzitegi Nazionalean egindako epaiketan. Hasieran fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu zuen Elkororendako. /5

ARRASATE

Homosexualendako elkargunea antolatu nahi dute

Gay eta lesbianendako topaleku bat antolatu nahi du Emakume Txokoak. Ekimena bereziki homosexualei zuzendutakoa den arren, edozeinek parte har dezake. Intereresa duenak Emakume Txokoan eman behar du izena. /5

Udalaitz
Touran
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Indonesiako altzariak
Erdi-prezioan!
URRETXUn
Udazken kanpaina
(urriaren 25etik azaroaren 30a arte)
Indonesiatik inportaturik, zure etxerako mota guztietako tekazko altzariak
Ordutegia:
10:00etatik 13:00etara eta
17:00etatik 20:00etara
(astelehenetik zapatura)
eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)
943 72 53 26
www.lba-antic.com



DEBAGOIENA/4 • HERRIZ HERRI/5 • IRITZIA/6 • KIROLA/8 • NON-ZER/14-15 • SAILKATUAK/16 • ESKELAK/17 • TELEBISTA/18 • HARPIDEDUNEN TXOKOA/19

ANTZERKIA

Kanpingags:
EZETZ LEPOA JARRI
Euskarazko estreinaldia

Aktoreak:
Kontxu Odriozola
Jose Ramon Soroiz
Joseba Apaolaza
Asier Hormaza
Ainhoa Aierbe
Kiko Jauregi

Non:
Arrasateko Amaia Udal antzokian

Noiz:
Urriaren 17an, domeka, 19:30ean.

Sarrerak aurrez salgai:
barikuan eta zapatuan (urriak 15-16): 18:00etatik 20:00etara

DANTZA

Aukeran dantza konpainia:
IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA

Non:
Arrasateko Amaia Udal antzokian

Noiz:
Urriaren 24an, domeka, 19:30ean.

Sarrerak aurrez salgai:
barikuan eta zapatuan (urriak 22-23): 18:00etatik 20:00etara

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

OÑATIKO 9. ESKALADA TXAPELKETA 2004

Urriaren 17an
Zubikoa kiroldegian

- Izenematea 6 €
  10:00-10:30
- Sailkapen probak11:30
- Finalak 17:30



ANTOLATZAILEA:

BABESLEAK:

Lurraldeko zeinuak direla-eta, matrikulak berbagai dira berriz

Erkidegoko zeinuak dituzten diseinuak ezarri nahi ditu Madrilek

LEIRE KORTABARRIA

Autoen matrikulen auziak hautsak harrotu zituen orain lau urte Euskal Herrian eta Katalunian, batez ere. Orain, Espainiako Gobernuak kolore eta aldarte berria dituela aprobetxatuz, orain lau urteko hautsok berriro harrotu dira eta gaia mahai gainean dago berriro ere, batzuen pozerako eta besteen atsekaberako. Izan ere, Espainiako Barne Ministerioak "proposatu" du autoen matrikuletan erkidegoak identifikatzeko zeinuak sartzea. Neurria onartzen bada, matrikula diseinu berria derrigorrekoa izango da Estatu osorako.

Oraingoz, Kataluniak eman dio erantzun azkarren eta garbiena Madrilen intentzio horri, eta neurria txalotu du. Baina politika alde batetik doa, eta bestetik, praktikotasuna eta baita dirua ere... izan ere, auto-saltzaileek ez dute berotasun berarekin hartu.

Debagoienean, antzeko iritziak entzuten dira.

LEIRE KORTABARRIA

Ibarreko sailtzaileek diote matrikulak aldatzeak batez ere bigarren eskuko autoen salmentak zailduko lituzkeela.

MERKATUAREN KALTERAKO

Auto arloko Estatuko hainbat elkartek –tartean, Espainiako RACE elkartea eta Europako Automobil-gidarien Elkarteak, AEAk– Madrilen proposamenari ezezko borobila eman diote, "atzerapausoa" delakoan eta, batez ere, bigarren eskuko merkatuarendako "oso kaltegarria" izango litzatekeelakoan.

Horixe bera esan digute Debagoieneko auto-saltzaileek.

Bigarren eskuko autoak saltzea "askoz zailagoa" izango litzatekeela kexatzen dira auto-saltzaileak. 2000. urtean gaur egungo matrikulak ezarri aurretik zeuden plakadun autoak saltzea asko kostatzen zitzaien batzuetan, autoa matrikulatuta zegoen lurraldetik edo probintziatik kanpo salgai zegoenean,batez ere: adibidez, Gipuzkoako SS matrikuladun autoak saltzea, edo EAEtik kanpokorik gurean saltzea, ez zen lan erraza. "Jendea oso gustura dago oraingo matrikulekin", diosku Felix Elortza Udalaitz auto-kontzesionarioko saltzaileak. "Matrikula zaharrak aldatzeko eskaera asko izan ditugu. Adibidez, orain badugu bat autoa anaiari eman behar diona, eta anaia kanpoan bizi denez, matrikula aldatu nahi dio".

Elortzaren ustez, "jendeak asko borrokatu zuen matrikulen *anonimotasuna* lortzeko, eta horrek arazo asko saihestu ditu. Nik neuk dut esperientzia txarrik, Euskal Herritik irten eta autoari arrastoak egin zizkiotenean". EAEko matrikula izateagatik askori kaltetu diote autoa kanpoan, iraindu, edo antzerako arazoak sortu. Gauza bera gertatzen zen inoiz kanpoko inor gurera etortzen zenean. Auto-saltzaileak beldur dira matrikula eredu horiek onartuz gero, hainbat berriro ez ote den auto bila Nafarroara joango.

> *Askok proposatzen dute, matrikula aldatu beharrean, nork bere gustuko pegatina ipin dezala*

Rafa Etxabe Mugarri kontzesionarioko arduradunak iritzi bera du merkatuarekiko eraginari dagokionean: "Lehengora bueltatzen gara: lurraldea aditzera ematen duten matrikulek autoari balioa galarazten diote, batez ere bigarren eskukoei, *zero kilometro*-koei... Merkatu horrek auto asko eta asko mugitzen ditu".

Etxabek gaineratzen duenez, "ez dut uste azkenean neurri hori onartuko denik, izan ere, auto-egileek ez dute nahi merkatu batzuk beste batzuen aldean diskriminatuta egoterik".

PEGATINEN AUKERA

Orain lau urte lurralde bakoitzeko bereizgarriak ezabatu zirenean, gero eta gehiago ikusi ziren autoetan EUS zeinua zeramaten pegatinak. Batez ere Eusko Alkartasuna alderdiak zabaldu zuen kanpaina hori. EAk ez du oraingoz Madrilen proposamenaren gainean kanpainarik egin, baina, alderdi horrek adierazi duenez, "gure jarrera lehengo berbera da". Debagoieneko ordezkariek ere ez dute gaia landu, baina esaten dute "eztabaidatu" daitekeela. Edozelan ere, gaur egun proposamen berriaren alternatiba moduan horixe bera aipatu izan da: alegia, eredu ofiziala aldatu barik, nahi duenak lekuko pegatina ipin diezaiola matrikulari.

Hor ere eztabaida izan zen, ordea, izan ere, askok zioten Nafarroako ikurra erabiltzea zela zuzena, euskaldunon historiari begiratuz behintzat.

Ideologia, batetik, eta praktikotasuna, bestetik, bereiztuta agertzen direla eman dezake, baina hori konklusio azkarregia litzateke. Erabiltzaile askorendako, dutena duten ideologiarekin, matrikulak lurraldeka bereizgarriak izateak edo ez du aparteko garrantzirik, gaur egun behintzat. Rafa Etxabe Arrasateko auto-saltzaileak honela dio: "Euskal Herria independentea balitz, ez genuke halako arazorik, baina bitartean, neurri hori euskal ekonomiaren kalterako izango litzateke".



BI EREDU PROPOSATZEN DITU MADRILEK

Bi eredu proposatu dituzte orain arte: batak erkidegoaren siglak izango lituzke; besteak, armarria edo antzemateko erraza den bestelako sinboloren bat. Espainiako E hizkia ere eramango luke.

Matrikulak, munduan

HAN EZ DA ISKANBILARIK EGON
Alemanian eta Frantzian, lurraldeko ikurrak daramatzate matrikulek; ez, ordea, Europako lurralde gehienek.

NORK BERE MEZUA
AEBetan, Estatu bakoitzak bere diseinua du. Gehigarri bat ordainduz gero, nahi den mezua jar daiteke plaketan.

IRUDIMENA NAGUSI
Katalunian, guara (hango astoa) edo katuaren (CAT laburdurak ingelesez duen esanahiarekin) pegatinak zabaldu dira.

LEHENA, GUREAN
Gaur egungo matrikula eramaten lehen autoa Gasteizen birmatrikulatutako Mercedes auto bat izan zen.



OIHAN VEGA

Debagoieneko Mankomunitateko presidente Ignazio Lakuntzak eguaztenean eman zituen gaiaren gaineko zehaztasun guztiak.

Lagun Arokoen egoerak areagotu egin du ospitalearen arazoa

Lagun Aroko 50.000 mutualista Osakidetzara pasako dira laster

GOIENKARIA

Eskualde ospitale berria egin, edo dagoena handitu. Aukera baten edo bestearen aldeko apustua egin beharko da, lau urteko epean Debagoieneko Ospitaleak 30.000 lagun gehiagori eskaini beharko baitio zerbitzua.

Debagoieneko Ospitalea txiki geratu dela ez da kontu berria, baina arazoa areagotu egingo da, Lagun Aroko mutualistak Osakidetzara pasako baitira. Era horretan, lau urteko epean, gutxienez 30.000 lagun gehiagori eman beharko dio zerbitzua eskualdeko ospitaleak.

Osakidetzak irtenbide bi ditu une honetan esku artean: dagoen ospitalea berritu eta handitu, edo sei solairuko eraikin berria egin, Ignazio Lakuntza Arrasateko alkateak joan den egunean jakinarazi zuenez. Itxura denez, dagoena berritzeak aukera gehiago ditu, baina oraindik ez dago ezer erabakita Arrasateko Udalaren eta Osakidetzaren artean. Lakuntzak uste du ganorazko zerbitzua eskaini beharko liokeela Osakidetzak eskualdeari. Bien bitartean, Arrasateko zinegotzi sozialistek eta popularrek uste dute ospitalea handitu beharrean berria egin beharko litzatekeela. Aralarrek, berriz, ospitalearendako gune egokiagoa bilatzea proposatu du.

ESKARIA HANDITU EGINGO DA

Aurreikuspenen arabera, Lagun Arok dituen 50.000 mutualistetatik, %70ek egingo dute Debagoieneko Ospitalearen aldeko apustua. Horrek ekarriko du urtero 3.500 ospitaleratze eta 300 jaioberri gehiago izatea. Mediku espezialisten kontsultara joango direnen kopuruak ere izugarri egingo du gora: halako 50.000 gehiago urtean.

Diru kontuak direla eta pasako dira Lagun Aroko mutualistak Osakidetzara. Kontua da azken hiruzpalau urteetan ez dutela Lagun Aron Gizarte Segurantzaren dirulaguntzarik jaso, eta kooperatibisten dirulaguntza ez da nahikoa zerbitzuari aurre egiteko. Lege aldaketa bat tarteko, ez da dirulaguntzarik jaso azkenaldian.

OSPITALEAREN HASIERAK

Kooperatibetako bazkideek makina bat arazo izan dute osasun arloarekin. 1959an, Gizarte Segurantzatik kanpo geratu ziren. Arazoari irtenbidea eman nahiez, 1964an zenbait kontsulta eta umea erditzeko gunea antolatu zituzten bazkideentzat Zalduspe auzoan, egun ospitalea dagoen tokian. 1981. urtera arte, Asistentzia eta Hezkuntza Ligaren mende izan zen. Urte hartan Deba Garaiko Ospitale bilakatu zen, eta 1987an, Osakidetzak hartu zuen gidaritza.

Urtero 3.500 ospitaleratze eta 300 jaioberri gehiago aurreikusten dira Eskualde Ospitalean

DEBAGOIENEAN LABUR

Teilatua konpontzen ziharduen behargin bat jausi eta larri zauritu zen Arrasaten

Eguazten arratsaldean lan istripua gertatu zen Arrasaten. Ertzaintzak emandako datuen arabera, Udalara bidean dagoen Larratzu baserrian izan zen istripua, 16:50ean. 35 urteko R.A.M. gizonezkoa baserriko teilatua konpontzen zebilela lurrera jausi zen. Kolpearen ondorioz, buruan zauri larriak izan zituen. Hala, baserrira anbulantzia medikalizatutako bat bidali zuten eta hantxe bertan egin zioten aurreneko azterketa medikoa. Horren ostean, Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten langilea.

185 etxebizitzarako 459 lagunek egin dute izenematea Aretxabaletako Eguzkienean

Eguzkienean, Udalak finkatutako prezioan, etxebizitzaren bat eskuratu nahi duten 459 lagunek egin dute izenematea. 185 etxebizitza egingo ditu Brues enpresak. Orain, 459 lagunek aurkeztutako dokumentuak aztertu, eta baldintzak betetzen dituztenekin zerrenda bat egingo dute, eta zerrenda hori ondoren udaletxean egongo da ikusgai. Bestalde, eguaztenean Aretxabaletako udalbatzak Eguzkieneko plan partziala onartu zuen. Gune hori urbanizatzen hasteko lehenengo urratsa.

Metal arloko LAB sindikatuko langileek "lan-hitzarmen duina" aldarrikatu dute

LAB sindikatuak deituta, metal arloko zenbait langilek auto karabana egin zuten eguen goizean Arrasaten. Sindikatuko ordezkariek adierazitakoaren arabera, Gipuzkoan negoziatzen dabiltzan lan-hitzarmena dela-eta, hitzarmen duin eta bidezkoa eskatzeko egin zuten protesta ekitaldia.

Ibarreko 43 taldek eman dute izena Danbaka lehiaketan

'Asteleheneko Goienkaria'-n 20 aukeratuen izenak

GOIENKARIA

Sekulako arrakasta izan du Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketak. Izan ere, ibarreko 43 talde aurkeztu dira. Antolatzaileak, Goiena komunikazio enpresako eta Espaloia kafe antzokiko arduradunak, oso pozik daude deialdiak izandako erantzunarekin.

Oraingo astelehenean kaleratuko duten *Asteleheneko Goienkaria*-n emango dira aditzera lehiaketan parte hartuko duten 20 taldeen izenak. Ez hori bakarrik; *Asteleheneko Goienkaria*-n 20 talde horien argazkiak ikusi eta biografia irakurri ahal izango da, eta lehiaketaren gaineko zehaztasun gehiago ere izango dira: epaimahaiaren lehenengo balorazioa, zuzeneko emanaldien egutegia eta emanaldi bakoitzean zeintzuek joko duten, sarien berri, ikus-entzule eta irakurleen saria aukeratzeko zer egin behar den…

Lehiaketara aurkeztu diren 43 talde edo bakarlarien estiloak askotarikoak dira, denetarik dago, eta hori nabarmentzekoa da antolatzaileen ustetan. Bestalde, jatorriari dagokionez, jakina, guztiak Debagoienekoak dira, baina herrika sailkatuz gero, 17 Arrasatekoak dira, 11 Bergarakoak, lau Oñatikoak, hiru Eskoriatzakoak eta bina Aretxabaleta eta Elgetakoak. Gero, badira herri bat baino gehiagokoak direnak ere. Antzuola, Aramaio eta Gatzagako bat bera ere ez da aurkeztu.

MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
•Alexandrita laserra
•ND:YAG:
•Fotodepilazioa (argi pultsatua)
Proba DOAN ordua eskatuta
DEPILTOTAL Sarearen zentro gertukoena
Azkarra, etengabea eta segurua

TXINATAR MEDIKUNTZA ETA AKUPUNTURA JAPONIAR IKASTAROA
Eugenio Ramos Merinoren eskutik
txinatar medikuntza, osteopatia, masajista eta kinesiologian diplomaduna.
Hasiera: urriaren 30a
Iraupena: 130 ordu.
Informazio zabalagoa: Bizkaia etorbidea 12, 2. D
Tel.: 943 77 06 22 / 645 70 17 27

ANTZUOLA

Jesus Etxeberriak 60 DVDtan antolatu ditu egindako grabazio guztiak

Jesus Etxeberriak orain dela hamalau urte erosi zuen bere lehenengo bideo kamera. Ordutik gaur arte egin dituen grabazio guztiak 60 DVDtan antolatu ditu, Udalak hala eskatuta. Artxibo historikoan gorde dituzte irudi horiek; Udal Liburutegian, berriz, herritar guztien eskura jarri dituzte DVDak, maileguan hartzeko.

Era guztietako irudiak ikusi ahal izango ditugu: kultur ekitaldietakoak, herriko jaietakoak, urte hauetan herrian izandako hainbat gertakarietakoak eta abar. /A.I.

ARAMAIO

Aurtengo azokan herritarren parte-hartzea bultzatu guran

Urriaren 30ean, Erretiratuen Eguna ospatuko dute Aramaion. Besteak beste, artisauen eta baserritarren azoka egiten dute egun horretan. Herritar zein kanpotar bisitari ugari erakartzen ditu azokak; baita saltzaileak ere. Azken urteotan Aramaiokoek baino, kanpoko saltzaile gehiagok parte hartu dute azokan. Hala, etxekoen parte-hartzea bultzatzeko, aurten, Udalak dirulaguntzak emango dizkie saltokia ipintzen duten herritarrei. Eta urriaren 30ean, 20 saltokitik gorako azoka izango da Aramaion. /U.M.

GANBARA ABESBATZA

OÑATI

Hamar urte bete ditu Oñatiko Ganbara Abesbatzak

Oñatiko Ganbara Abesbatzak hamar urte bete ditu, eta musika zikloa egingo du datozen egunetan, hamargarren urteurrena ospatzeko. Hainbat korutatik zetozen 12 gaztek sortu zuten Oñatiko Ganbara Abesbatza. Ordutik hona taldea handitzen joan da eta orain, 20 lagun inguruk osatzen dute. Sergio Cueva izan zen hasierako zuzendaria eta egun Esteban Urtzelaik zuzentzen du. Urte hauetan hainbat lehiaketatan hartu du parte Ganbara Abesbatzak eta sari asko irabazi ditu, gainera. Oñati Abesbatza eta Ganbara Abesbatza Txikia ere badira Oñatin, eta guztiek hartuko dute parte urteurrenaren ospakizuneko musika zikloan. Bihar, zapatua, izango da lehen kontzertua, Santa Anan 19:30ean. Urriaren 23an eta 30ean izango dira besteak. /O.E.

ARRASATE

Gay eta lesbianendako elkargunea antolatu nahi dute Arrasaten

Gay eta lesbianendako topaleku bat antolatu nahi du Emakume Txokoak. Bilboko Aldarte elkartea arduratuko da topalekuaz. Aldarteko kide Ana Uretak azaldu digun moduan, "gay eta lesbianak elkartzea da helburua eta hortik sortuko den guztia onartuko dugu. Normalean, lagun bila etortzen dira halakoetara". Izan ere, Ana Uretak adierazi digun moduan, jende askok oraindik ere bakardadean bizi du homosexualitatea.

EDOZEINEK PARTE HAR DEZAKE

Ekimena, bereziki, homosexualei zuzendutakoa den arren, edozeinek parte har dezake. "Homosexualitatearen gainean gehiago jakin nahi dutenendako da topalekua"; homosexualitatearen gainean sortzen diren egoerak aztertu, kezkak argitu... eta halakoak egingo dituztela esan digu Ana Uretak. Gaineratu digunez, denetarik egingo dute: "Abiapuntua norberaren esperientzia izango da" baina horrekin batera, adituek-eta diotena ere landuko dute Arrasateko topalekuan. Interesa duenak Emakume Txokoan eman behar du izena: 943 79 41 39 telefonoan.

HAMAR URTE LANEAN

Aldarte elkarteak hamar urteko ibilbidea egin du, Bilbon. Besteak beste, gay eta lesbianen gurasoei eta anai-arrebei zuzendutako topalekua dute han. Horrez gainera, orientazio legala ere badu Aldarte elkarteak. Astean 80 bat lagunek parte hartzen du Aldartek antolatutako ekimenetan. /U.M.

Zertzelada

Ekimena homosexualei zuzendutakoa den arren, homosexualitatearen gainean gehiago jakin nahi duen edozeinek har dezake parte topalekuan

BERGARA

Hiru urteko kartzela zigorra ezarri diote Paulo Elkorori

Paulo Elkorori hiru urteko kartzela zigorra ezarri zioten eguaztenean, beraren aurka Madrilgo Auzitegi Nazionalean egindako epaiketan. Hasieran, fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu zuen Elkororendako, Araba Komandoarekin kolaboratzearen akusaziopean. Hala ere, ezinbesteko kolaborazioa egozten bazioten hasieran, azkenean kolaborazio intentzioa leporatu zioten. Ondorioz, hiru urteko kartzela zigorra ezarri diote.

Elkoro 2003ko urtarrilean atxilotu zuten Alemanian. Espainiako gobernuak egindako estradizio eskaeraren bitartez, 2003ko azaroa ezkero Alcala Meco espetxean dago preso. /E.M.

EDU MENDIBIL

Elkororen aldeko elkarretaratzea egin zuten eguaztenean Bergaran.

ELGETA

Hiru irlatxo ipiniko dituzte Artekalean autoen abiadura murrizteko

Iazko abuztuan, herri barruko ibilgailuen joan-etorria mantsotzeko asmoz semaforoak ipini zituzten. Baina ustez ez da nahikoa, eta Udalaren eskariz Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru irlatxo eta semaforo bat ipiniko ditu Artekalean hasi eta Eibarrerako bidera bitartean. Lehenengo irlatxoa eliza ostean egongo da eta bertan semaforoa ere ipiniko dute. Bigarrena Artekaleko azken etxeetatik gutxi gorabehera 40 metrora; eta azkena, San Rokeko parkearen amaieran. /I.A.

ARETXABALETA

Herriaren ezkerraldean etxeak egiteko lehenengo urratsa

Lausitan hasi eta kirol etxeraino, guztira 428 etxebizitza eraikiko dira, 84 mila metro koadroko lurzoruan. Hori dela eta, herriaren ezkerraldeari dagokion gune hori, Eguzkienea izenekoa, urbanizatu ahal izateko plan partziala onartu berri du Udalak. Horren ostean etorriko dira urbanizazio eta konpentsazio proiektuak.

Etxebizitzen 12 bloke, familia bakarreko 18 etxebizitza eta eskola nahiz kirol ekipamenduetarako lursailak izango dira Eguzkienean, plan partzialean jasota dagoenez. /M.A

ESKORIATZA

Perretxikoez gehiago jakiteko aukera asteburuan Eskoriatzan

Luis Ezeizako guraso elkarteak antolatuta, mikologiari buruzko jardunaldiak egingo dituzte Eskoriatzan asteburuan. Zapatuan perretxiko bila joango dira mendira; 09:00etan irtengo dira Gorosarri plazatik. Arratsaldean, bildutakoa sailkatu egingo dute, eta domekan perretxikoen erakusketa egingo dute. Zapatu arratsaldean, herri guztiari zuzenduta, bi hitzaldi emango dituzte eskolako areto nagusian.

Geroz eta zale gehiago duen praktika da mikologia, eta horregatik antolatu dute ekimena. /Z.V.M.

GATZAGA

Gatzaga ezagutzera kanpoko jende asko gerturatu zen iragan asteburuan

Lau eguneko oporraldia izan dute askok. Horrek jende mordoa erakarri du herrira. Landetxeak, esaterako, bete-beteta egon dira. Eta ez dira soilik euskaldunak gerturatu; esate baterako, Kanariar Uharteetatik bisita izan dute Aterbe landetxean.

Bestalde, Gatz Museoak ere jende ugari erakartzen duela ezin ukatu. Izan ere, Aitziber Gorosabel arduradunak aditzera eman duenez, 30 bisitari jaso zituen eguneko; hasiera batean uste zutenak baino gehiago. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

Gutunak

Lapurrak?

Onartu behar dut zalea naizela sail honetara hurbiltzen, askotariko gaiak komentatzeko eta nire iritzi apala emateko (bat, askoren artean), eta batzuetan banitate puntua ere izan dezaket. Egia esan, oraingo honetan ez dut egiten *motu proprio*, baizik eta egoerak eraginda.

Harira. Urriaren 1ean, Maritxu Kajoi jaia, lagunekin batera gau oparo eta dibertigarria hastera nindoala, zerbait nahiko desatseginarekin egin nuen topo. Patuaren zoria izango da, batzuetan era makabroan jotzen gaituena, baina nire begien aurrean pegatina bat ikusi nuen. Organizazio-kide Jose Antonio Baz-en erretratua zegoen bertan, eta beheko aldean berba bat: *Lapurrak!*. Eta berba horren ondoren, *Herriaren hitza errespetatu!*. Gaiari umore ukitua emateko —nahiz eta ez duen—, esan beharra dago erretratuak ez ziola mesederik egiten eta beronen diseinua negargarria zela.

Ohituta nago politika kontuetan mugitzen, eta oso ohituta nago era guztietako ergelkeriak entzuten, denboraren poderioz egia aldaezin bihurtzen diren ergelkeriak.

Aforismoak dio gezur bat, behin eta berriro errepikatuta, azkenean egia aldaezin bihurtzen dela. Hortaz, kontu honek ez luke izan behar garrantzi handiagorik, ez balitz egileen zitalkeria moralagatik.

Zera, bizitza publikoan mugitzen den edozein organizazio, mugimendu edo alderdik kritikatua izateko arriskua dauka, bera eta bere iritziak edota jarrerak. Baina horrek ez du eraman behar akusazioak pertsonalizatzera.

Nire organizazioaren jarrera bat edo bestea kritikatu gura duenak askatasun osoa du, baina guztiz onartezina da kide bati "jazarpen biolentzia" egitea.

Estrategia zikin horrek ez du zikinduko Jose Antonio Baz-en zintzotasun eta ontasuna. Garapen soziala lortzeko proiektu bat partekatzeaz gain, lagun handiak gara. Iritzi politiko sendoak ditu, eta euskal herriaren alde lan egin du, lan egiten ari da eta lan egingo du; bide batez, kalumnia hori esan dutenek baino lan handiagoa.

Beste barik, gaiaren muinari eutsiko diot: *Lapurrak!* epigrafe panfletario *imaginatiboa*. Orain arte ez dut landu gai hori, baina aspertuta nago horrenbesteko zinismo eta fariseismoz. MLNVren diskurtsoa faltsua eta kontraesankorra da: esku batekin elkarrizketa eta indar batzea bilatzen ditu gatazkari irtenbidea aurkitzeko, baina besteare-kin ahalegintzen dira eraso egiten euren legez kanporatzeari oposizio argia azaldu dietenei, dimiti dezaten. Jose Antonio Baz zinegotzia da Arrasaten, Alderdien Lege injustuagatik; baina, era berean, MLNVk gure herrian jarraitu zuen estrategiagatik. Izan ere, bideak zeuden legez kanporatzea ekiditeko, bideak oztopo legislatiboa ekiditeko. Hortaz, ez gaitzatela egin garai baten MLNVk gure herrian hartu zituen estrategien arduradun. Aspertuta nago horrenbesteko dirigismo iluministaz, eurek euren eskuetan egia osoa duten bisioa, eta gainerakook ikustea ez dakit zeren eta ez dakit ze egoeratako diskolo, konplize eta adeitsu gisa.

Hamlet-en moduan, mamuak ikusten dituzte leku guztietan. Uler dezagun, behingoz, herri honek ez duela hartuko jarrera bat edo bestea, MLNVk momentu bakoitzean hartzen dituen estrategien arabera. Ez dut parte hartuko legitimitateen eta esne-saltzaileare-n ipuinen joko arriskutsuan. Eta etorkizunean, seriotasun handiz baloratuko dut nire jarrera kanpaina zikin horiek sustatzen dituzten pertsona eta taldeekin, eta Jose Antonio Baz-en zintzotasuna defendatuko dut, orain eta beti. Bukatzeko, barkamena eskatzen dut momenturen baten "biolentzia berbala" erabili badut, baina uler ezazue amorruak eta krispazioak hartuta nagoela.

ANDER RODRÍGUEZ LEJARZA (EB)
Arrasate

Azpiegiturak, gizartearen eredu

Herriko jaiak pasa berri ditugun garai honetan, udako oporrak ere ia ahantzita ditugun garai honetan, udazken-negu partean sartu gara buru belarri. Denboraldi polita ere, udaberri-uda bezala; bakoitzak bere xarma baitu, aurkitzen jakin behar dena.

Eta esandako honekin, norberaren bizitzako etapa guztietan, hasiberriak gara: lanerako denboraldi berria, ikasturte berria, proiektu berriak, promes berriak, ilusio berriak, aurrera begirako plangintzak… Eta kurtso politiko berria ere bai nazio mailan, baita herri mailan ere; nazio mailan behintzat beroa izango dena: eztabaida garrantzitsuak non Euskal Herriaren etorkizuna jokoan egongo den; hauteskundeak (berriro ere) EAEri dagokionez...

Eta Oñati mailan, zer? Hemen ere eta gure herriari begira, Udaleko dinamika hor dago, martxan jarria; non gai ezberdinak elkartzen diren eta elkarrekin bizitzen jakin behar duten bai beraiek; eta are gehiago gu geu guztiok, hainbat buruhauste eta korapila sortzen dizkiguten horien kudeatzaileak (nahiz "apartheid"a zoritxarrez ahantzi ezin).

Sarrera hau eginda eta Zubillagako saihesbidea aitzakiatzat hartuaz (inauguratu berria denez), gure herria zein ingurua azkenaldi honetan astindu dituzten eraikuntza, lan…ei buruz hainbat hausnarketa luzatzea nahi genizueke; azpiegituraz ari gara hain zuzen. Eta horren inguruan zuek ere beraien eragina jasaten dituzuen herritarrok zaretenez, zer esana izango duzuelakoan, lerro hauek irakurtzeko minutu batzuk hartzea eta ondoren zuen burutazioak ateratzea eskertuko genuke.

Gure aburuz, aspaldi honetan badago makina eraikin zein berrikuntza gure inguruan. Baina ondo aztertuz gero, ez da zaila gauzak berdin edo kasu aunitzetan okerrago daudela konturatzea. Oraintxe bertan esandakoaren adibide garbia, inauguratu berria den Zubillagako saihesbidea, alde batetik, eta, bestetik, auzo bera zeharkatzen duen betidaniko errepidea direlarik.

Arantzazuko Amaren egunean, hau da, pasa den irailaren 9an inauguratu zuten lehena eta bestea, berriz, denok ezagutzen dugu (urteetan zehar ondorioak jasan izan ditugulako) zein egoeratan dagoen. Beno, denok edo ia-ia denok. Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Gonzalez de Txabarrik, agian, ez; Zubillagako saihesbidearen inaugurazio egunean honoko adierazpenak egin baitzituen: "… gure errepideak konpontzea eta txukuntzea behar beharrezkoak dira; ez bakarrik hiriburu handikoak…". González de Txabarriren ustetan, Gipuzkoako lurraldean garrantzi berdina omen dute edo maila berdinean jarri zituen (behintzat horrela ikusi genuen islatuta komunikabide ezberdinetan) hiriburuak zein herri txikiak, azken hauen azpiegituren inguruan indar berezia ipiniz… Noski, gauza bat da inaugurazio egun batean burutzen diren adierazpenak eta gero eguneroko jardunean eramaten den politika. Beraz, apustu bat egingo genioke González de Txabarriri, hau da, Oñatiko plazatik irten eta San Prudentziorainoko distantzian ezetz joan bizikletan 100 metro saka egin gabe. Jakina irabaziko geniola eta oso erraz gainera

Baina, historia gogoratuz eta denboraz atzera abiatuz, Arau Subsidiarioak lantzen hasi zirenean, hainbat herritarrek bere kezka eta ardura azaldu zuten; arrazoi sinple batengatik: bi saihesbide berri planteatzen zirelako, Santxolopetegikoa eta Olabartakoa, hain zuzen. Ezker Abertzaleko ordezkariek (bi azpiegitura hauek ez zirela agian inoiz eraikiko pentsatuz) lur hauek estrategikoki aztertzea ongi ikusi genuen eta ikusten dugu; baina ez orain ezta epe ertainera ere, ez genuela eta ez dugula honen beharrik aurreikusten agerian utziz behin eta berriro. Era berean, betidanik adierazi izan dugu, egungo errepideak konpondu eta aldaketa batzuk eginda nahikoa izan daitekeela Oñati bezalako herri batentzako.

Eta zer gertatu da? Inauguratu berri duten saihesbide hau egin dute bai; baina Zubillaga auzoa zeharkatzen duen errepidea, nola utzi dute? Hitzak soberan daudela uste dugu; denok bi begi ikusteko eta buru bat pentsatzeko ditugulako, ondorio objektiboak atereaz.

Ezker Abertzaletik aspalditik gabiltza Zubillagako errepide honen konponketa aldarrikatzen eta hau da jaso dugun erantzuna. Beste hainbat kasutan jaso dugun berdina; adibide gisa, Olateko errepidearena delarik. Errepide hau Foru Aldundiaren konpetentzia izanik, berau konpondu aurretik oinezkoentzako eta bizikleten erabiltzaileentzako egokipen bat burutzea eskatu zitzaien (bidegorria…). Eta jasotako erantzuna ezetza izan zen; nahiz jakin badakigu Eusko Jaurlaritzatik plangintzen bat egon bazegoela. Beraz, noiz pentsatzen dute honoko plangintza abian jartzea? Hori da gure galdera nagusia; nahiz kontziente izan eta aztertuta eduki gure bailarak, hau da, Debagoienak geografikoki dituen oztopoak.

Edo agian dirua soberan dute; eta aipaturiko sosa hauek guztionak omen direnez eta norberak (edo agintean daudenak, behintzat) ez duenez bere poltsikotik atera behar; gaur egin dutena bihar agian ez du ezertarako baliorik izango eta beste milioi dezente kostatuko zaigun ordenazio plangintza berria martxan jar dezakete. Zilegia al da aurrez ekidin badaiteke?

Beraz, esandako guztiak agerian uzten du gure herria eta errepideak zer "garrantzi estrategikoa" duten Foru Aldundian, milioi ugari gastatu dira eta gastatuko dira (Eibar-Gasteiz autopista egiten, adibidez); baina gure bailarak eta, batez ere, gure herrietako errepide txikiak itxaron egin beharko dute. Gure arbasoek bere herriari zein etorkizun itxaroten ziola jakin izango balute, agian beste era bateko erabakia hartuko lukete 1845. urtean, Gipuzkoan errepide hau zela medio sartu baikinen.

Amaitzeko adierazi, datozen hilabeteetan puntu nagusi batean oinarrituko dela Oñatiko Udalaren jarduera; 2005. urteari dagozkion Udal Aurrekontuetan, hain zuzen. Eta hemen oñatiar guztiok eta gutariko bakoitzak zer esan handia izan beharko genuke, gure herriaren eta gu geu guztion diruaren kudeaketa aurrekontu hauen filosofiaren onarpenean oinarrituko delarik. Beraz, ardura gu geu guztiona da eta berari heldu behar diogu; gero ez baitute balio kritikak eta kexuak helaraztea. Zezenari adarretatik eta aurrez heldu behar zaio, ez ordea zezenak harrapatu ondoren; orduan alferrik baita (aipatu ditugun gaiak kasu). Baina, azken gai honi buruzko hausnarketak beste baterako utziko ditugu.

EREITTEN
Oñati

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen joan den zapatua. Debagoienean ere badago elkarte bat buru gaixotasuna duten lagunekin eta euren senideekin batera lan egiten duena. Bergaran du egoitza eta hantxe batzen dira.

ARGAZKI PRESS

Juan Sanchez Vallejo

PSIKIATRA

"Buru gaixotasuna gero eta jende gehiagok du, gure bizimodu ereduak eraginda"

'MOBBING' ETA 'BULLYING' FENOMENOAK

"Maila batean dauden pertsonek bizi duten pisu emozionala ikaragarria da. Batzuek eutsi egiten diote eta beste batzuk depresioan erortzen dira. 'Psikoterrorismoa' deitzen diote"

INFORMAZIOAREN GARRANTZIA

"Oraindik ere urrutitik begiratzen diogu buru gaixotasuna duenari. Informazioa izatea ezinbestekoa da hori konpontzeko, eta elkarteek lan handia egiten dute arlo horretan"

OIHANA ELORZA

Zer da buru osasuna?

Ez da erraza definitzea. Nik barneko oreka bezala ulertzen dut; oreka emozional horrek lasai bizitzen uzten dio pertsonari. Ez dut esan nahi pozik bizi denik, baina bai lasai. Horixe erakutsi dit nire esperientziak.

Zenbatek dute buru gaixotasuna?

Zaila da erantzutea, mediku, psikiatra eta soziologoak ez baikara ados jartzen. Nork bere estatistikak, bere zenbakiak ematen ditu; aditu batzuek ez dituzte kontuan hartzen portaera, nortasun edo izaerarekin lotutako trastorno batzuk. Hala ere, gutxi gorabehera, biztanleriaren laurdenak jasaten duela esango nuke; Europako populazioaren %20k izan du nahasteren bat bere bizitzan zehar. Multzo horretan sartzen ditut depresioak edo angustiak izan dituztenak, haurrak, gazteak zein nagusiak.

Gero eta pertsona gehiagok jasaten ei dute buru gaixotasuna.

Baietz uste dut. Lehen mailako kontsultetan ikusten dut jendeak arazo psikikoak dituela. Nahiz eta eurek jakin ez, medikua konturatzen da horretaz. Kontsulta hauetara datozen gaixoen %40k arazo psikikoak dituzte: depresioak eta antsietateak, adibidez. Gaixoak, ordea, ez dio arazo hauetaz hitz egingo medikuari, arazo fisikoez hitz egingo dio: urdaileko mina duelako, sexua ondo egiten ez duelako, buruko mina duelako...

Arazo psikikoak dira buru gaixotasunaren arazorik ohikoenak?

Buru gaixotasunaren barruan sartzen dira gizakiaren psikologiari lotuta dauden guztiak, eskizofrenia edo erotasunetik eta izaera ezegonkorreraino. Eskizofrenia, agian, muturreko egoera da, baina badaude beste asko hain argi ikusten ez direnak, eta horiek bezain besteko garrantzia dutenak; adibidez, beti gaixo daudela uste duten gaixotasuna edo zerbaiti beldurra, fobia, diotena.

Zergatik ari da hedatzen? Zein da arrazoia?

Arrazoi asko daude, baina garrantzitsuenetakoa egun bizi dugun estresa da.

Oraintxe, *mobbing* edo lan presioari buruzko txosten bat ari naiz egiten. *Mobbing* fenomenoari *psikoterrorismoa* deitzen diote dagoeneko munduko hainbat tokitan. Maila horretan dauden pertsonek bizi duten pisu emozionala ikaragarria da. Batzuek eutsi egiten diote presio horri, baina beste asko emozionalki apurtu egiten dira eta depresioan erortzen dira. Eta *bullying*-arekin, berdin.

Nik bizitzeko ereduari leporatzen diot, gehienbat, buru gaixotasuna. Kontsumoaren morroi gara, zenbat eta gehiago kontsumitu zoriontsuagoak izango garela uste dugu, eta horri laneko estresa gehitzen badiogu, ez da batere harritzekoa buru gaixotasunak hedatzea.

Gaixoa askotan ez dela konturatzen esan duzu. Eta senideak?

Senideak dira, gehienetan behintzat, gaixotasunaz ohartzen diren lehenengoak. Gaixoak, gainera, ez du onartu nahi izaten arazo psikikoa duenik, eta inguruko senitartekoak dira konturatzen direnak pertsona horrek izaera aldatu duela eta ez dela bere onera bueltatzen.

Atzematen dira aurrez nahaste psikikoak? Garaiz atzematen dira?

Gorputzeko gaixotasun organikoekin gertatzen ez den moduan, trastorno edo gaixotasun psikikoak beti harrapatzen dira garaiz. Etxekoek edo ingurukoek atzematen dute lehendabizi gaixotasuna, horiek medikuarengana eramaten dute, eta hark, behin diagnostikoa egin ostean, espezialistarengana bidaliko du beharra izanez gero. Beraz, garaiz atzematen dira. Arazoa dator medikuarengana joan nahi ez dutenean.

Gaixoak bere arazoaren berri duenean bi gauza gerta daitezke: gaixotasuna onartzea eta medikuaren esanak betetzea edo espezialistarengana joateri uko egitea. Lehenbiziko aukera oso gogorra da, zaila baita buru gaixotasuna duzula onartzea; bigarrenak, berriz, ondorio larriak ekar ditzake.

Oraindik ere ez da normal ikusten psikiatra edo bestelako buru espezialista baten beharra izatea. Informazioak konpon dezake hori?

Are gehiago, erakunde eta elkarte guztiok informazioa eskaini behar dugu. Horixe izan behar da gure lehenengo lana.

Horixe da senitartekoen elkarteek egiten duten lanetako bat, ezta?

Lan hori ezinbestekoa da, eta elkarte hauek lan izugarria egiten dute. Etxean ere izaten dute lana, baina hala ere, denbora eta indarra ateratzen dute lanean jarraitzeko. Tamalez, ez da behar bezala baloratzen egiten duten lana.

Zergatik ezkutatzen da buru gaixotasuna? Zergatik zaio beldurra?

Arazo zaharra da hori. Garai batean ez ziren erabat garbiak buru gaixotasuna zutenak, arraroak zirenak. Arazoa morala zen orduan, eta XXI. mendean bizi arren, oraindik ere gelditzen dira uste horren arrastoak. Gaur ere baztertu egiten da horrelako gaixotasuna duena. Tamalez, gizarteak ez du zentzu horretan asko aurreratu eta oraindik ere urrutitik begiratzen zaio horrelako gaixotasunen bat duenari.

Elkarteek egiten duten beste lan bat hauxe da: distantzia hori laburtu eta baztertzen dutena hurreratzen saiatzen dira.

Normalean, trastorno psikikoak dituztenak etxekoekin bizi dira. Zer gertatzen da bakarrik gelditzen direnean edo etxekoek lagundu ezin dietenean?

Bakoitzak gaixotasun mota edo maila ezberdina du eta, noski, batzuk beste batzuk baino errazago moldatuko dira bakarrik. Eta modurik ez dutenek egoitzetara joan beharko dute.

Zein irtenbide eskaini behar dituzte erakundeek?

Ospitaleetatik kanpo eskaintzen diren zerbitzuak gero eta gehiago dira; lehen baino gehiago zaintzen da orain buru gaixotasuna. Adibidez, buru gaixotasunaren zentro bereziak eraikitzen dituzte, eguneko zentroak ere badaude, erakundeek kudeatzen dituzten egoitza txikiak ere toki askotan daude eta baita giza erakundeek zuzendutako etxeak ere. Gero eta gehiago egiten da, bai, baina oraindik asko dago aurreratzeko.

Gaixoa baztertu beharrean, bere ingurunean bizitzen jarraitzea erraztu behar du gizarteak. Askotan pertsona bizi den inguruak berak du zerikusi zuzena gaixotasunarekin eta inguru horrek baztertu egiten du pertsona gero. Laguntzak gaixoa bere ohiko bizimoduan integratzen laguntzeko dira eta horixe da guztion artean lortu behar duguna: batzuk politika eginez, beste batzuk tratamendu egokia emanaz eta, batez ere, bazterrean ez uzten.

Zergatik ematen du diru gutxi Osasun Sailak buru gaixotasunerako?

Bai, Osasun Sailaren laguntza txikienetakoa jasotzen du psikiatria arloak. Arazo etereoak zaintzen dituen arloa da, filosofia eta medikuntza artean lana egiten duen arloa. Hau da, burukoa ez da aparailu bidez neurtzen den gaixotasuna, eta ondorioak ez dira erabat zientifiko eta zehatzak. Beste arlo batzuek baino gizatasun gehiago eskatzen du arlo honek eta horrek ez du beste espezialitate batzuk duten beste indarrik eta baloraziorik.

Eta komunikabideok nola zaintzen dugu arlo hau?

Komunikabide askok biolentzia eta buru gaixotasuna lotzen dute eta ez da justua. Egunkariek ia egunero dakarte horrelako titularra duen notiziaren bat. Horrelako artikuluak gordetzeko ohitura dut, eta mordo bat ditut dagoeneko. Zergatik lotzen dute beti ekintza buruko osasunarekin eta ez egilearen egoera fisikoarekin? Badakit gaiztoak diren eroak ere badaudela, baina torturatu osasuntsu daudenek egiten dute. Hipokrisi handia dago.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

40 kilometro mendiko bizikletarekin

Domekan Eskoriatzan egingo duten mendiko bizikleta ibilaldian 300 lagun espero dituzte

XABIER URZELAI

Oñatiko eta Gatzagako ibilaldietan gozatu eta gero, ibarreko mendiko bizikletako zaleek galdu ezin duten hitzordua daukate domekan, Eskoriatzako zeharkaldia, hain zuzen. 09:30ean hasiko dute proba, Herriko Plazan.

Izena emateko, baina, antolatzaileak 08:00etarako izango dira Herriko Plazan. Probako antolatzaile Juan Luis Markaideren esanetan 300 lagun inguru espero dituzte, eta horiek guztiek izena eman ahal izateko denbora apur bat behar da: "Joan den urtean 282 lagunek hartu zuten parte Eskoriatzako zeharkaldian, eta gurako genuke aurten 300 lagun inguru batzea".

Txirrindulari kopuru horrek argi erakusten du Eskoriatzakoa ez dela txantxetako ibilaldia, domekan 15 urte egingo ditu-eta zeharkaldi horrek: "Eskoriatzan lagun asko ibili gara lanean, eta domekan herritar asko ibiliko dira laguntzen. Horrez gain, eskertzekoa da Udalak eman digun laguntza. Laguntza hori izango ez bagenu oso zaila izango litzateke horrelako ekitaldi bat antolatzea.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Antolatzaileek espero dute euria eginda ere lokatz handirik ez egotea.

HASIERA GOGOR SAMARRA

Ibilaldiari dagokionez, Juan Luis Markaidek azpimarratu du hasiera gogor samarra daukala, baina ibilbidearen bigarren zatia askoz ere lasaiagoa dela: "Eskoriatzatik Mazmelara joango gara, eta trenbide zaharretik Zarimutzerako bidea hartuko dugu. Handik Marulandara jaitsi eta Marinera iritsiko gara. Laster hasiko dira autobidea egiten, eta leku hori erabat apurtuko dutenez, ibilaldia hortik egin gura izan dugu, inguru hori ez dugu eta gehiago horrela ikusiko. Gero, Gatzikarrotik Kurtzetara abiatuko gara eta handik Jarindora. Marototik pasa eta gero, Landara jaitsiko gara eta han izango dugu jatekoa eta edatekoa. Gutxi gorabehera 23. kilometroan egongo dira jatekoak eta edatekoak".

Indarrak berreskuratu eta atseden apur bat hartu eta gero, ibilaldiaren bigarren zatia hasiko dute: "Landatik Gure Ametsara joango gara, trenbide zaharretik, eta Iruerreketara iritsitakoan, Usar atzean utzi eta Aitzorrotzera helduko gara". Aitzorroztik Eskoriatzara jaitsi baino ez da egin behar, eta Bolibar auzotik igaroko dira horretarako.

Eskoriatzan, ziklistek 40 kilometroko zeharkaldia egin eta gero, sabela bete ahal izango dute, odolosteak eta txorizoak jarriko dituzte-eta. Gainera, antolatzaileek mendiko bizikletako pieza eta bestelako osagarriak zozketatuko dituzte, eta partaide bakoitzarendako kamiseta egongo da. Hori guztia hamar euroren truke.

Kirolabur

FUTBOLA/PREFERENTEA

Ibarreko futbol taldeen artean, Aloña Mendik eta Bergarak jokatuko dute asteburuan etxean. Entrenatzaile berria izango da Oñatikoen aulkian, Aitor Orueta, eta Pasaiaren bisita izango dute, domekan, 16:30ean. Bergarak, berriz, Mutrikuren kontra jokatuko du zapatuan 16:30ean. Aretxabaletako taldeak Zestoara joan beharko du zapatuan, 16:30ean. Eta Mondrak Tolosaren zelaian jokatuko du domekan 16:30ean.

SQUASHA/ARRASATE

Debagoieneko Squash Ligaren barruan, Udazkeneko Txapelketa jokatuko dute Arrasaten datorren urriaren 28tik aurrera. Izena emateko epea datorren eguaztenean, hilak 20, amaituko da. Txapelketan esku hartzeko ez da beharrezkoa federatua egotea. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, jo zuen herriko kiroldegira.

OÑATI/ESKUBALOIA

Arrikrutz Oñatiko Kobak Eskubaloi Taldeak Hondarribiaren kontra jokatuko du bihar arratsaldean (18:00etan) Zubikoa kiroldegian. Joan den astean galdu eta gero, puntuak etxean geratzea izango da oñatiarren helburua.

gazteok
matraka
egiten goaz!
matraka.info

RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiek, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, aldez aurreko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

XV Juegos Mediterráneos Almería 2005

Pieza de Origen Renault
Espíritu Renault

RENAULT recomienda elf

Renault Servicios. Gelditu ez zaitezen mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

RENAULT
AUTOBERRI
San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez

EUSKAL OKELA

Eusko Labela duen bakarra

CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

EUSKO LABEL KALITATEA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA

ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA

ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI

ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Kontzertuetara joan nahi baduzu,

gazte kutxa

bidez gauzak erraztuko zaizkizu.

Gaztekutxako txartela daukatenek hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute (kontzertu bakoitzeko lehenengo bi sarrerak). Horretarako, sartu **www.gaztekutxa.net** helbidean edo www.goiena.net-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure Gaztekutxa txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

Prezioak	Espaloian	Gaztekutxa bitartez
• Kontzertu bakoitzeko sarrera	3 euro	Euro 1
• 6 kontzertuetarako abonua	15 euro	6 euro

Adi,

ASTELEHENEKO GOIENKARIAn (urriak 18),

aurkeztutako talde guztien artean,

20 aukeratuen izenak

emango ditu ezagutzera epaimahaiak!

gazte kutxa

Goienkaria · Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten · Gipuzkoako Foru Aldundia · Kafe Antzokia espalola Elgeta · Goitb Goiena Telebista · Carrión música · Arrasate Irratia · jakina sukaldeak • bainu gelak keramikak · Memesa industria hornidurak · Mondragon Unibertsitatea · Goieskola · Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing · Goienkaria · Elgetako Udala · Zirt-Zart · Irudi Sport

Umeak

Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a / GOIENKARIAren gehigarri berezia

Umeak eta telebista
Ume-kotxeak
Moda
Estetika
Denetariko gurasoak 28)

UMEAK
Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

■ DEBAGOIENDARRAK

Guraso izateko era asko dago, baita geurean ere

MIRARI, MANEX, EÑAUT, FELIS, MONIKA ETA ALAITZ / ARETXABALETA

Irailean jaio zen Monika, Mirari eta Felixen laugarren umea, hain justu. Alaitz (5 urte), Eñaut (3 urte) eta Manex (2 urte) dira Monikaren anai-arrebak. Gurean, ez da batere ohikoa bikote gazteek lau ume izatea. Mirari eta Felis, baina, aurreko hirurekin esperientzia polita eta aberasgarria izan dutenez, laugarrena izatera animatu dira. Noski, lan handia ematen dute: "Iluntzeak izugarriak izaten dira; laurei afaria eman, bainatu..." . Aipatzekoa da hirugarren seme-alabatik aurrera Jaurlaritzak dirulaguntzak ematen dituela.

JASONE, JOXE ETA JOSU / BERGARA

Oraintxe bete ditu hiru urte Josuk. Otsaila ezkero Bergarra Bergaran; Kolonbian jaio zen, baina, gaur egun, Jasone eta Joxeren semea da, adoptatu egin dute. Seme-alabarik ezin zutenez eduki, adopzioaren bidea aukeratu zuten. Bi urteko prozesuaren ondoren, etxean dago Josu.

MIREN / ARAMAIO

Martxorako, bikiak espero dituzte Mirenek eta bere bikotekideak. Hasieran ezusteko handia jaso zuten arren, oso pozik daude orain. *Asteleheneko Goienkaria*rako jaioberrien argazkiak ateratzen jarduten du Mirenek, astero. Laster, hura ikusiko dugu, bikiekin.

AINTZANE, GOIZEDER ETA AMETS

Gaur egun, lau jaiotzatik hirutan, amak 30 urtetik gora du. Badaude, baina, oso gaztetan umea izaten dutenak ere; horixe izan zen Aintzaneren kasua. 21 urterekin izan zuen lehen umea. Goizeder bere alabak ere gazte izan zuen Amets, 23 urterekin, hain zuzen ere. Bergararrak dira.

ANA, PATXI, IBAN, MARI ETA DANI / ANTZUOLA

Ezusteko handia hartu zuten Marik eta Patxik berria jaso zutenean: bikiak espero zituzten. Orain oso pozik daude, baina hasierako hilabeteak gogorrak izan ziren: "Aitona-amonen laguntasuna izan dugu beti, eta hori asko eskertzen dugu. Jaurlaritzaren dirulaguntzak jasotzen ditugu", azaldu digute. Bestalde, noizean behin haserretu egiten diren arren, konplizitate handia dutela kontatu digute.

■ TELEBISTA

Umeak telebistari begira

AINTZANE IRIZAR

Umeek telebistaren aurrean pasatzen duten denbora gurasoi, irakasle eta hezitzaile askoren ardura izaten da. Telebistan zelako programak ikusten dituzten eta programa horiek umeengan zer eragin duten ere kezkarako arrazoia izaten da.

Hainbat adituren arabera, egunean 50 minutu baino gehiago telebistaren aurrean pasatzea kaltegarria da umeen eta gaztetxoen kasuan. EHUk duela sei urte egindako ikerketa batek, berriz, zera dio: umeek egunean bi ordu baino gehiago pasatzen dutela telebista ikusten.

Gauzak horrela, ulertzekoa da gurasoen ardura. Gainera, azkenaldian biolentzia areagotu egin da marrazki bizidunetan; gure umeek ikusten dituzten hainbat programaren zerrenda egin dugu eta Lorea Zurutuza Jarduneko Haur eta Gazte Saileko arduradunaren iritzia jaso.

SHIN CHAN/ETB

Adin guztietako ikusleak ditu, haurrak eta helduak, guztiak erakartzen ditu. Marrazki bizidun hauetan azaltzen diren jarrerak, askotan, ez dira oso egokiak izaten; kritikatu izan dituzte jarrera horiek, batez ere, umeak Shin Chan imitatzen hasten direnean.

DORAEMON/ETB

Doraemon katu kosmikoaren abenturek ere arrakasta handia dute txikien artean; fantasiaz betetako istorioak kontatzen dituzte marrazki bizidunen sail horretan, eta horrek umeak erakartzen ditu. Orokorrean, balorazio positiboa egin daiteke.

TRIKITRAKA, TRIKITRON/ETB

Umeen artean oso ezagunak egin diren pailazo hauek, pedagogikoki, lan ona egiten dute: balio positiboak transmititzen dituzte, euskara egokia erabiltzen dute. Jolasen bitartez, didaktikoki, hainbat gauza irakasten dituzte.

ANIMALIKERIAK/GOITB

Animaliek basoan izaten dituzten abenturak erakargarriak izan daitezke umeendako. Telebistan ikusten dutenak fantasia eta errealitatea bereizten ikasteko balio izaten die; izan ere, laister konturatzen dira telebistan ikusi dutena ez dela erreala.

LOS SIMPSON/ANTENA 3

Egungo gizartearen gaineko kritika egiten dute eta horrek erakarri egiten du ikuslea. Umeendako, pedagogikoki, ez da oso egokia; alde batetik, kritikak ez dituztelako ulertzen; bestetik, pertsonaiaren jarrera, Bart-ena, ez delako oso egokia.

LOS LUNNIS/TVE

TVE telebista kateak sortutako saio hau pedagogikoa da eta hainbat balore positibo transmititzen saiatzen da. Gazteleraz dela kontuan hartuta, eredu zuzenak hizkuntza horretan barneratzen dituzte. Saio hauek euskalduntzen saiatu beharko genuke.

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa

Ferrerias kalea 28, behea • Arrasate • Tel.: 943 79 64 57

Solariumerako bonuak:
- 10 saioko bonuarekin saio bat opari
- 20 saioko bonuarekin bost saio opari
- 30 saioko bonuarekin hamar saio opari

Masajeak:
- Bizkarreko mina
- Zaintiratuak
- Drainatze linfatikoa
- Zelulitisa
- Zirkulazioa hobetzea
- Erlaxazioa

Saioa 20€ - lehenengo kontsulta doan

Dietetika eta nutrizioa:
- Dieta pertsonalizatuak
- Hainbat tratamendu:
- Gizentasuna
- Diabetesa
- Hipertentsioa
- Hiperkolesterola
- Osteoporosia
- Eta abar

(**Laura Alutiz Cano diplomadunaren aholkularitzapean)**

Estetika:
- Depilazioa argizari epelarekin
- Aurpegi garbitzea
- Aurpegi eta gorputzerako tratamenduak
- Esku eta oinetarako tratamenduak
- Betileen tindatzea eta permanentea
- Eta abar.

Edertasun eskaintzak:
- Bi aurpegi garbitze, baten prezioan
- Depilazio bonuak:
  - sei depilazioko bonuarekin aurpegi garbitzea opari
  - hamabi depilazioko bonuarekin aurpegi garbitzea eta estresaren aurkako tratamendua opari

Laser bidezko depilazioa:
Diodo LightSheer laserra gustuko ez dugun ilea kentzeko sistemarik eraginkorrena da. Gizon eta emakumezkoentzako soluziorik onena.

Akupuntura:
- Estresa eta antsietatea
- Artrosia eta artritisa
- Alergiak
- Mehartzea
- Adiposia
- Anemia
- Zirkulazioa
- Mina: bizkarra, burukomina
- Idorreria
- Gripea
- Lunbagoa
- Likido-erretentzioa (zelulitisa...)

Saioa 20€ - lehenengo kontsulta doan

■ UME-KOTXEAK

Erosotasuna helburu duten ume-kotxe aukera zabala

BEBE CONFORT LOOLA

- Guztiz tolesten da, eta oso espazio txikia hartzen du.
- Aulkia edo Maxi-Cosia jartzeko aukera dauka.
- Heldulekuak norberak nahi duen posizioan jartzeko aukera ematen du.
- Estalkia kentzeko aukera dauka, garbitu ahal izateko.
- 499 euro, txasia kapazuarekin.

INGLESINA SKY

- Aulki arinen mailan kokatzen da modelo hau.
- Kapota dauka, urarekiko iragazgaitza.
- Hankendako estalki berogarria dauka; baita euria egiten duenerako plastikozko estalkia ere.
- Aulkiaren azpian, saski handi bat dauka.
- 164 euro.

BUGABOO FROG

- Eskulekua bi aldeetara jartzeko aukera; gurpil handiak aurrean jarrita, mendian, esaterako, hobeto ibiliko gara.
- Bi gurpilekin ibiltzeko aukera eskaintzen du, hondartzarako edo elurretarako.
- Maxi-Cosia eta kapazua jartzeko aukera.
- 589 euro, txasia aulkiarekin; kapazua, 90 euro.

RED CASTLE JOGG

- Hiru gurpileko ume-kotxea dugu. Aurreko gurpila pibotantea da; gurpil hori posizio finkoan jartzeko aukera dago.
- Aurreko gurpilean diskodun balaztak dauzka.
- Kapazua edo Maxi-Cosi antzerakoa jartzeko aukera.
- Txasia aulkiarekin batera saltzen da (473 euro); kapazua, 123,5 euro.

MUTSY

- Ume-kotxe oso arina da, erraz gidatzeko modukoa.
- Itxuraz, egitura oso berezia dauka, baina gogorra, egonkorra eta oso iraunkorra.
- Eskulekua altueran erregulatzeko aukera ematen du.
- Oso erraz tolesten da, gorde nahi dugunerako.
- 496 euro, txasia aulkiarekin.

BEBE CONFORT TROPHY

- Eskulekua erregulagarria da altueran; ume-kotxea eraman behar duenaren altuerara egokitzen da eskulekua.
- Aulkia edo Maxi-Cosia jar dakioke.
- Takodun gurpilak dauzka; horrela, lurzoru guztietara egokitzen da.
- Txasia kapazuarekin (aulkirik gabe), 436 euro.

KTIBOS
ZAPATA DENDA
Murubide 2 behea • Aretxabaleta
Tel.: 943 53 37 33

Pausoz pauso hobetuz goaz

■ UMEEN MODA

Kolore biziz jantziko dira umeak udazken eta neguan

AINTZANE IRIZAR

Garai bateko umeen modak ez du gaur egungoarekin inolako zerikusirik. Urte luzetan asko aldatu ez zen mundu hau izugarrizko berrikuntzak izaten ari da azkeneko urteotan. Kolore biziak eta helduen antzerako arropak dira nagusi gaur egun.

Ume txikienendako ere gero eta aukera zabalagoa dago; betiko arropa klasikoak ez daude hain boladan. Garai bateko haur txikien arropa ponpoxoak ez dira hainbeste ikusten gure inguruan, nahiz eta oraindik ere, hiriburuetan, estilo klasikoak indarra duen. Hemen, berriz, gure inguruan, dendariek esan digutenez, arropa koloretsuak izaten dira lehenengo eta gehien saltzen dituztenak.

Neskatilen kasuan, gona motzak eta kolore bizikoak ikusiko ditugu gehien datozen udazkenean eta neguan. Gonekin batera, noski, leotardoak, hotzari aurre egiteko. Pasa den udan bezala, fuksia da koloreen artean nagusi; jakina, umeen modan, arropak alaia izan behar duelako, ez udan bakarrik, baita neguan ere, egun hotz eta goibelei alaitasun pixka bat emateko. Beste ezaugarri nagusi bat erosotasuna da. Umeendako arropa ekoizleek garrantzi handia ematen diote horri, umeak ume baitira; txikiek ez dute geldi egoteko adinik.

Mutikoen kasuan ere gero eta toki garrantzitsuagoa hartzen dihardute kolore biziek. Laranja eta teila kolorea, esaterako, aurtengo udazken eta neguan asko ikusiko ditugun koloreak dira.

ARROSA BAINO GEHIAGO

Neskatila txikienen modan, kolore klasikoek –arrosak, batez ere– boladan jarraitzen duten arren, beste kolore batzuk ere gero eta gehiago erabiltzen dira: horia, beixa, berdea, grisa... Hori bai, betiere kolore suabeak izan ohi dira haur txikien kasuan. Gainera, arrosaren kasuan ere, kolore klasikoa izan arren, arropek ukitu modernoagoak dituzte datorren neguko denboraldiari begira.



URDINETIK BERDERA

Mutil txikien kasuan ere antzera gertatzen da; betiko arropa urdin klasikoak aurki ditzakegun arren, kolore aukera asko zabaldu da azken urteotan. Aurtengo udazken eta neguko denboraldian ere horixe gertatzen da: beixa, tonu marroiak, berdea... Oinetakoetan ere antzera gertatu da, eta kolore gehiago sartu dira: oinetako gorriak, laranjak, urdinak... Denetik pixka bat aurkituko dugu.

HELDUEN ANTZERA

Umeen moda asko aldatu da azkeneko urteotan, eta mutiko txikiek ere, 3 urte artekoek, hain zuzen ere, mutil helduagoen antzerako estiloa hartuko dute aurtengo tendentziekin. Koloreei dagokienez, teila kolorea eta laranja asko ikusiko ditugu; baita urdina ere, baina, betiere, urdin biziak. Pana zabala dago boladan, baita txandal estiloko arropak ere; txandal jantziak, baina.



KOLORE FUKSIA NAGUSI

Urtebete eta 3 urte bitarteko neskatilek txikienek baino aukera zabalagoa dute. Aurtengo udazken eta neguko kolorea, zalantza barik, fuksia izango da. Boladan dauden gainerako koloreak ere oso biziak dira. Soinekoek eta prakek garrantzia izango duten arren, gonak izango dira protagonista nagusiak, gona motzak, gainera. Era guztietako materialak aurkituko ditugu: pana, puntua, *jeans*-ak...

GONA AUKERA ZABALA

Emakume helduen modan azkenaldian ikusi dugun moduan, gona motzek protagonismo berezia hartuko dute umeen modan ere. Dena dela, gonekin batera, soinekoek ere izango dute euren tokia; pana zabaleko soinekoak, esaterako, asko ikusiko ditugu. Bestalde, koloreak iaz baino biziagoak izango dira; kolore bizi horien artean, fuksia izango da denen gainetik nabarmenduko dena.

TXALEKOAK BOLADAN

Teila kolorea marroiarekin, teila kolorea berde kakiarekin eta urdin argia marroiarekin. Horiexek dira mutiko nagusitxoagoei, 4 eta 10 urte artekoei, ikusiko dizkiegun kolore konbinazioetako batzuk. Prakak, era guztietakoak: olanazkoetatik hasi eta panazkoetaraino, denetik. Gorroak, berriz, panazkoak eta polarrezkoak. Bestalde, txaleko itxurako txamarrak oso boladan daude.

UMEAK
Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

■ ESTETIKA

Haurdunaldian eta ondoren, gorputza lirain

AINTZANE IRIZAR

Nork bere gorputza zaintzea beti da onuragarria. Haurdunaldian eta erditzearen ondoren, baina, garrantzi berezia izan ditzakete tratamendu estetikoek, gorputzak aldaketa nabarmenak izaten dituelako garai horietan.

Haurdunaldiarekin, osasuna modu berezian zaintzeaz gain, gorputzaren kanpoko itxura zaintzea ere oso garrantzitsua izaten da. Horretarako, ez da umea izan arte itxaron behar; funtsezkoa izaten da haurdunaldian hastea zainketekin, izan ere, esaerak dioen moduan, hobe da aurrea hartzea, gero sendatu beharra izatea baino.

Jakina, itxura fisikoa eta osasuna oso lotuta daude. Horrela, osasunari behar bezala erreparatzen badiogu, osasuntsu eta indartsu egoteaz gain, ederrago ere egongo gara. Zirkulazioari laguntzeko drainadura oso gomendagarria da, adituen esanetan; baita hanketan masajeak hartzea ere. Bestalde, paseatzea oso onuragarria da haurdun dagoen emakumearendako; zirkulazioari mesede egiten dio eta pisua kontrolatzen ere lagundu egingo dio egunero paseo bat emateak.

Azkenik, aipatzekoa da, estriak edo ildoak ez irteteko, garrantzitsuena dela azala ondo hidratatzea; bularrak eta abdomena izaten dira estriak ateratzeko joera handiena duten gorputzeko atalak; izan ere, azala tiratu egiten da zonalde horietan.

HAURDUNALDIA ETA GERO

Umea izan ondoren ere behar izaten dute emakumeek gorputza zaintzea, bere onera itzuli dadin. Izan ere, haurdunaldiak eragin handiak izan ditzake gorputzean: emakume asko gizendu egiten dira, pisu gehiegi hartzen dute; beste batzuen gorputzak bere formak galdu egiten ditu; zelulitisa areagotu egiten da; estriak azaltzen dira, eta abar.

Dena dela, adituen esanetan, umeari bularra eman bitartean, ez da batere gomendagarria zenbait tratamendu hastea. Argaltzeko erabiltzen diren zenbait tratamendu orokor, esaterako, kaltegarriak dira emakumearen esnearendako; izan ere, hainbat produktuk, azaletik barnera eta handik odolera pasatu eta esneari zapore arraroa ematen diote.

Hala ere, badaude emakumeak bularra eman bitartean bere gorputza zaintzeko egin ditzakeen hainbat gauza.

Batetik, erditzearen ondorengo gimnasiak berebiziko garrantzia dauka. Bestalde, kontuan hartu behar dugu haurdunaldiak zirkulazioari kalte egiten diola eta oso garrantzitsua izaten dela horri aurre egitea. Horretarako, oso gomendagarriak dira masajeak eta paseatzea, esaterako.

BULARRA EMATEN BUKATUTAKOAN

Behin umeari bularra ematen bukatzen duenean, gorputza bere onera itzularazteko hainbat gauza egin ditzake emakumeak. Dena dela, aditu batengana jotzea da onena; adituak kasu bakoitza aztertu eta horren araberako tratamendua ezarriko du. Tratamendu ohikoenak izaten dira zirkulazioari laguntzeko tratamenduak eta zelulitisa mugiaraztekoak. Noski, elikadura zaintzea eta kirola egitea ere oso ondo etorriko zaizkio emakumeari.

GOIENKARIA

Azala hidratatzea oso garrantzitsua da estriarik ez irteteko.

Argaltzeko erabiltzen diren zenbait produktu kaltegarriak dira esnearendako

Erditu ondoren, zirkulazioari laguntzeko tratamenduak egitea komeni da

Nork bere buruarendako denbora topatzea garrantzitsua da; kasu askotan, emakumeak lan handia izaten du umearekin eta pixka bat alde batera lagatzen du bere burua; horixe da egin behar ez dena.

ERDITZEAREN ONDORENGO GIMNASIA

Erditu eta berrogei bat egunera hasi daiteke emakumea gimnasia egiten. Ariketa fisikoa, gainera, erlaxatzeko ere oso ondo etorriko zaio. Nahikoa izaten da egunean hogei bat minutu ariketa fisikoa egiteko. Abdominalak egitea, paseatzea eta erditzearen ondorengo gimnasia saioetara joatea gomendatzen dute adituek. Badaude, baina, etxean egin behar diren hainbat ariketa. Baginako muskuluak eta txizari eusteko muskuluak indartzea oso garrantzitsua izaten da; horretarako, egokiena izaten da, txiza egiterakoan, txizari eustea ahalik eta denbora luzeenean.

AZALEKO ORBANAK

Emakume askok arazoak izaten ditu azalarekin. Gorputzeko azalari dagokionez, bereziki hidratatzea gomendatzen dute adituek, estriak ekiditeko. Haurdunaldian zehar, bestalde, azalean orbanak ateratzen zaizkio askori; orbanak marroi kolorekoak izaten dira, eta batez ere, bekokian, masailalboetan, kokotsean eta abdomenean ateratzen dira. Hilabete batzuk behar izaten dira orbanak desagertzeko; azalak, bere prozesu naturalean, denbora behar izaten du bere onera etortzeko. Desagertzen ez badira, dermatologoarengana jo behar da.

ILEA ERORTZEN DA ERDIBERRIAROAN

Erditzearen ondoren, lehenengo asteetan, erdiberriaro deitzen zaion garaian, emakume askori ilea erortzen zaio. Batere atsegina ez den arren, ez dago kezkatzeko arrazoirik, guztiz normala da eta hori gertatzea. Aste batzuetako kontua besterik ez da izaten. Ilea erortzearen arrazoia da, erditzerakoan, hormona kopurua bat-batean jaisten dela. Esan bezala, aste batzuk pasatu eta gero, ilea lehengora bueltatzen da; horregatik, ez da tratamendu berezien beharrik egoten. Hori bai, ez batere gomendagarria izaten garai horretan ilea tindatzea.

Mikropigmentazioan espezialistak
Bekainak, begiak eta ezpainak
Bi iraupen mota: 24 ordu, 365 egun
Aprobetxa ezazu *Aste bakarra aukera*: urriaren 18tik 22ra, %10eko deskontua
LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Bidekurutzeta 7 • BERGARA • TEL.: 943 76 31 71



Moda eta kolorea preziorik onenean

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

UNITED COLORS OF BENETTON.

Haur Hezkuntza
0-2 urte

Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza
2-6 urte

eredua D

Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

DBH

UMEAK
Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

Grupo Eroski

EROSKi

Erosten jakin

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a

Kultura eta aisialdia

Urriaren 15etik 22ra

Euskal Herriko estreinaldia Elgetan izango da, bihar, zapatua

'EZETZ LEPOA JARRI'

Elgetako Espaloia Kafe Antzokia auke-ratu du Kanpingags konpainiak Eus-kal Herrian lehenengo aldiz euska-razko *Ezetz lepoa jarri* antzezlana taularatzeko. Estreinaldia bihar, zapatua, urriak 16, izango da, 22:30ean. Sarrerak aldez aurreko salmentan egon dira pasa diren egu-notan, baina bertan erosteko modua ere izango duzue. 12 euro da. Debagoienean izan-go da, halaber, bigarren emanaldia, Arra-sateko Amaia Udal Antzokian, etzi, dome-ka, urriak 17, 19:30ean.

HILKETA BAT ETA HAINBAT XELEBREKERIA

Gaztelaniaz antzeztu izan du orain arte kon-painia horrek *Ezetz lepoa jarri*. Ile-apain-degi batean emakume bat hiltzen dute, eta bi ile-apaintzaileak –*Alizia* eta *Lujan*– eta bi bezero –*Lopez jauna* eta *Zenarruzabei-tia andrea*– susmagarri izango dira. Publi-koak pertsonaiekin berba egin eta bukae-ra aukeratzeko modua izango du, besteak beste. Eta, hori bai, nahikoa barre egiteko modua ere izango da komedia surrealista horrekin. **/13**

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: ZTP

BIDAIA HANDIAK

ZURE OPORRENGATIK EGIN
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN
DUGU

Irteerak
BILBOTIK

PUERTO RICO
5 egun / 4 gau

H. MIRAMAR TURISTA H.	HG	982
HYATT DORADO BEACH LUXUZKOA H.	OB	1.173

INDIAKO ESENTZIA
8 egun / 6 gau

BISITATZEKO: DELHI, JAIPUR (AMBER), FATEHPUR SIKRI Y AGRA.

A MAIL HOTELAK	HG	987

AEBak & KANADA

EKIALDEKO HIRUKIA 9 egun / 7gau

BISITATZEKO: NEW YORK, TORONTO, NIAGARAKO UR-JAUZIAK, WASHINGTON DC Y PHILADELPIA.

1 MAIL / TUR HOTELAK	OB	1.100

NUEVA YORK 8 egun / 7 gau

PENSYLVANIA TURISTA H.	OB	1.126

NUEVA YORK ETA ORLANDO 6 egun / 4 gau

TURISTA HOTELAK	OB	1.233

NUEVA YORK ETA MIAMI 6 egun / 4 gau

TUR / TUR SUP HOTELAK	HG/OB	1.251

COSTA RICA

COSTA RICAKO KONTRASTEAK 10 egun / 8 gau

BI PERTSONARENTZAKO ALOKATUTAKO AUTOA BARNE DAGO. 2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU ARENAL SUMEDIAN ETA 2 GAU MONTEVERDEN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG/MO	1.312

COSTA RICA KARTARA 10 egun / 8 gau

2 GAU SAN JOSEN, 2 GAU TORTUGUERON, 2 GAU ARENAL SUMEDIAN ETA 2 GAU MANUEL ANTONIO HONDARTZAN.

****/ *** HOTELAK	HG/MO	1.454

MALDIVAK
9 egun / 6 gau

LHOHIFUSHI 1ª H.	HG	1.359
PARADISE ISLAND SEMI LUXUZKOA H.	HG	1.535

BANGKOK

BANGKOK ETA CHIANG MAI 11 egun / 8 gau

4 GAU BANGKOKN ETA 4 GAU CHIANG MAIN.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	1.368

IPARRALDEKO TRIBUAK 13 egun

BISITATZEKO: BANGKOK, CHIANG MAI, PAI, MAE HONG SON ETA EMAKUMEEN TRIBUA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	1.639

SEYCHELLES
8 egun / 6 gau

BERJAYA MAHE BEACH 1ª H.	HG	1.378
LE MERIDIEN BARBARONS 1ª SUP H.	HG	2.071

GUATEMALA ZIRKUITUAK
9 egun / 7gau

BISITATZEKO: GUATEMALA, LA ANTIGUA, IXIMCHE, LAGO ATITLAN, SANTIAGO, QUETZALTENANGO, HUEHUTENANGO Y CHICHICASTENANGO.

/* HOTELAK	HG	1.402

MEXIKO - YUCATAN
9 egun / 7gau

BISITATZEKO: MEXIKO HIRIA, MERIDA, UXMAL, KABAH, CHICHEN ITZA, CANCUN ETA MAIA ERRIBERA.

TUR SUP HOTELAK	OB/TGB	1.481

MAURIZIO UHARTEA
8 egun / 6 gau

LE MAURICIA 1ª H.	ME	1.544
LE CANONNIER 1ª SUP H.	ME	1.554

KENYARA IHESI
9 egun / 7gau

BISITATZEKO: NAIROBI, ABERDARES PN, NAKURU LAKUA/ELEMENTAITA ETA MASAI MARA.

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	MO/HG	1.557

PERU TRADIZIONALA
10 egun / 8 gau

BISITATZEKO: LIMA, AREQUIPA, COLGA ARROILA, CUZCO, INKEN BAILARA SAKRATUA ETA MACCHU PICCHU.

TUR / 1ª HOTELAK	HG	1.825

PATAGONIA ETA IGUAZUKO UR-JAUZIAK
14 egun / 11 gau

2 GAU IGUAZUN (UR JAUZIAK IKUSI), 3 GAU BUENOS AIRESEN (HIRIA IKUSI), 2 GAU USHUAIAN (SUAREN LURRALDEA PN IKUSI), 4 GAU CALAFATEN (PERITO GLAZIARA IKUSI).

HOTELAK PROGRAMAREN ARABERA	HG	2.182



Irteerak Bilbotik, Patagoniara izan ezik (hauek Madrildik edo Bartzelonatik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, urriko irteera konkretuentzat bakarrik. Informazio gehiago gure bulegoetan. Karbuantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Oatatua bakarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia; MO: Mantenu osoa y GB: Gutzia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

BAL-001-MM

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

902 108 108

viajesiberia.com

ANTZERKIA/ 'EZETZ LEPOA JARRI' ELGETAN ESTREINATUKO DUTE BIHAR, ZAPATUA; ETZI ARRASATEN IZANGO DA

Hilketa argitu… eta barrez lehertu

KOMEDIA BATEN EUSKARAZKO BERTSIOAREN NAZIO ESTREINALDIA IZANGO DA GUREAN. PUBLIKOAK PARTE-HARTZE HANDIA DU

LEIRE KORTABARRIA

Euskal Herriko estreinaldi esperoenetariko bat izango da bihar, zapatua, non eta Debagoienean, Elgetako Espaloia kafe antzokian, hain zuzen ere. Gaztelaniazko bertsioan sekulako arrakasta izan duen *Ezetz lepoa jarri* komedia euskaraz estreinatuko da.

Nazio mailako estreinaldi bat izango da bihar, Elgetan, 22:30ean, Euskal Herriko aktore onen eta ezagunenetariko batzuen eskutik. Etzi, domeka, Arrasateko Amaia Udal Antzokian izango da antzezlan bera, 19:30ean. *Ezetz lepoa jarri* du izenburua, eta generoa da endredozko komedia… hilotz bat tartean dela. Hain zuzen ere, ileapaindegi batean emakume bat hiltzen dute, eta hango bi langile eta bi bezero dira susmagarriak. Bi ikertzaile saiatuko dira hiltzailea nor den argitzen, baina ez dira bakarrik egongo, izan ere, publikoaren laguntza izango dute horretarako. Hala da, bai: antzezlan parte-hartzailea dugu. Batetik, ikusleek galderak egiteko aukera izango dute, eta pertsonaiak gezurretan harrapatu; eta, parte-hartzea borobiltzeko, antzezlanak hainbat bukaera posible ditu, eta ikus-entzuleek bideratu ahal izango dute istorioa nahi duten tokira.

Aktoreen lanagatik izango ez balitz, ordea, antzezlana ez litzateke hain komiko eta bizia izango. GOIENKARIAk aukera izan zuen entsegu bat ikusteko eta halaxe egiaztatzeko. Jose Ramon Soroiz, Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ainhoa Aierbe eta Kiko Jauregi aktoreak, guztiak ere aurpegi ezagunak, ikusiko ditugu susmagarri zein ikertzaileen rolean, Kanpingags taldearen ekoizpen horretan.

ARETOKOAK ETA AKTOREAK, POZIK

Eguazten eta eguenean buru-belarri ibili ziren entseatzen aktoreak Elgetako Espaloia antzokiko agertokian. Gaur, egubakoitza, egingo dute azken entsegu orokorra, eta bihar, estreinaldi handia. "Sarrerak oso ondo saltzen ari dira eta espero dugu aretoa bete egingo dela: 350-400 bat lagun izango dira", diote Goibeko elkartekoek, aretoko kudeatzaileek.

Aretokoak gustura badabiltza, konpainiakoak ere oso pozik daude Espaloian. Izan ere, ezohiko abantaila asko dituzte han: dekoratuak bere horretan utzi ahal izan dituzte, egunero muntatze eta desmuntatze lan astunak egin beharrean. Bestetik, Espaloian bertan bazkaltzeko eta beste hainbat zerbitzu erabiltzeko modua dute.

Elgetako antzokiarendako aukera ederra da antzezlan hau aurkeztu ahal izatea, eta ildo horretatik jarraitzeko asmoa dute: besteak beste, urtarril parterako *La ratonera* antzezlan arrakastatsua ekarri nahi dute.



LEIRE KORTABARRIA

Eguaztena ezkero entseatzen ibili dira aktoreak Elgetan. Entseguetan ikusten da zein antzezlan dinamiko eta dibertigarria den.

KONTXU ODRIOZOLA / 'ZENARRUZABEITIA ANDEREA'

"Komedia bat da, eta horregatik gustura nabil"

Goizetik *Goenkale* telesaila, eta iluntzera arte, *Ezetz lepoa jarri* antzezlanarekin, lanpetuta dabil Kontxu Odriozola, baina, entseguetako etenaldi batean tartetxo bat eskaini digu.

Eguaztenean hasi zineten antzezlana serio entseatzen, ezta?

Hala da, bai. Ordura arte, ohiko entseguak egin genituen, baina eguaztenean etorri ginen Elgetako Espaloia antzokira lehenengo entsegu orokorra egitera,

Kontxu Odriozola, entseguan.

pertsonaien moduan karakterizatuta. Eta aldea egon da: tokien neurriak desberdinak dira, mugimenduak bestela neurtu behar dituzu, testua gogoan hartu… Gauza asko dira.

Zelakoa iruditu zaizu Espaloia bera?

Oso polita eta egokia da. Bitxikeria bat da, oso berezia. Guretako abantaila handia da eszenatokia muntatuta utzi ahal izateaeta; halakorik, nire ibilbide osoan, beste behin baino ez zait gertatu.

***Zenarruzabeitia anderea*rena egiten duzu. Zelakoa da?**

Emakume burgesa da. Klub nautikoak, oporrak… dira bere mundua. Senarrari ez dio jaramonik egiten, dirua bakarrik axola zaio-eta. Tuntun samarra da, ez du nortasun handirik, egia esan, baina nik hori gustuko dut.

Antzezlana ere berezia da: hilketa baten inguruko komedia bat da.

Bai, eta horregatik gustura nabil. Esaten didate rol dramatikoetarako dohaina dudala, baina beti negarra eragitea ez da gozoa. Beste aurpegi hau erakustea ere gustatzen zait.

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I.MUSIKA LEHIAKETA

Adi, ASTELEHENEKO GOIENKARIAn
(urriaren 18an kaleratuko dena), aurkeztutako talde guztien artean,
20 AUKERATUEN IZENAK emango ditu ezagutzera epaimahaiak!

gaztekutxa · Goienkaria · espaloia · Elgetako Udala · ARRASATE IRRATIA · Goitb · Goiena.net · Goienkaria · MEMESA · jakina · Carrión música · MONDRAGON UNIBERTSITATEA · Gipuzkoako Foru Aldundia · IRUDI SPORT

Urriak 15-22

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Yoga hastapen, meditazio eta bioenergetika** ikastaroak antolatu ditu Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak. Izena emateko mugaeguna da hilaren 18a, astelehena. Horretarako, deitu 616 96 57 95 telefonora.

ARRASATE

► **3 urte arteko umeei** masajeak ematen ikasteko tailerra antolatu du Emakume Txokoak. Izenemate epea gaur, egubakoitza, bukatzen da. Horretarako, deitu 943 79 41 39 zenbakira.

► **Hainbat ikastaro** antolatu ditu Udal Gazte Sailak: grafologia, txarri dantza, eta perkusioa. Izena emateko, jo Gazte Informazio Bulegora edo deitu 943 77 00 65 telefono zenbakira. Grafologia ikastaroa azaroan hasiko da; gainerako biak, berriz, datozen egunotan.

BERGARA

► **Gurasoendako euskara eskolak** antolatu ditu Udal Euskaltegiak. Bost eskola izango dira, azaroan. Helburua da gurasoei tresnak ematea seme-alabekin euskaraz hobeto egiteko, besteak beste. Izena emateko, jo ikastetxeetara edo udaletxera.

ESKORIATZA

► **Honako Internet ikastaroak** izango dira KZGunean: oinarrizko Internet tailerra hilaren 18tik 29ra bitartean, 11:00-13:00 ordutegian, eta Flashget Internet bidez artxiboak jaisteko programaren ikastaroa, eguenean, hilak 21, 09:00-11:00. Doan izango dira.

OÑATI

► **Denetariko ikastaroak** deitu ditu kultura etxeak: hari eta puntu lanak, joskintza, egur lanak, zeramika, margogintza eta informatika. Izenemate epea gaur, egubakoitza, bukatzen da. Horretarako, jo kultura etxera. Informatika ikastarorako izenematea 943 03 77 00 telefonoan egin beharko duzue.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Antzuola-Aiherra senidetzearen** gaineko erakusketa zabalduko dute urriaren 23an. Hori dela eta, senidetzearen gaineko argazkiak uzteko dei egiten dute. Udaletxean utzi behar dira.

ARAMAIO

► **Ur-jauzien ibilbide turistikoa** antolatu du Zuiako koadrilak etzirako, domeka. Izena emateko mugaeguna bihar, zapatua, duzue, 945 14 55 99 telefonoan.

ARRASATE

► **54an jaiotakoek** ospakizuna egingo dute azaroaren 13an. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontu korronte batean.

► **Numantzia-Reala** partidua ikusteko Soriara irteera antolatu du Txuri Urdin lagunarteak urriaren 31rako. Bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute autobusarengatik; 40, sarrerarengatik; eta 35, han egingo duten bazkarian parte hartu gura dutenek. Bazkide ez direnek 5 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Izena emateko azken eguna da gaur, egubakoitza, Monte tabernan.

BERGARA

► **Jolasleku ibiltaria** Espoloian izango da gaur, egubakoitza, 17:00-19:00. Jardun elkarteak antolatu du, 6-12 urte bitartekoei zuzenduta.

► **Pilota eskolan** izena emateko epea zabalik dago urriaren 29ra bitartean. 1991-1998 bitartean jaiotakoak matrikulatu daitezke. Interesa dutenak harremanetan jar daitezela Reyes Azkoitiarekin.

► **62an jaiotakoek** kinto ospakizuna egingo dute hilaren 30ean. Izenemate epea zabalik dago hilaren 26ra arte, Erreki jatetxean.

DEBAGOIENA

► **Nafarroa Oinez jaialdira** joateko autobusak antolatu ditu Debaguneak. Argibideetarako, deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

DONOSTIA

► **Antzuola-Aiherra senidetzearen inguruko** ospakizunak aurkeztuko dituzte gaur, egubakoitza, Koldo Mitxelenako areto nagusian, 11:00etan. Antzuolako eta Aiherrako udal eta kultura ordezkariak izango dira.

ELGETA

► **Elgeta Auzolanian plataformak** batzarra egingo du gaur, egubakoitza, liburutegian, 20:00etan. Udaleko azken berriez eta egoera politikoaz jardungo dute, besteak beste.

ESKORIATZA

► **Mikologiaren gaineko jardunaldiak** antolatu ditu Luis Ezeiza Guraso Elkarteak bihar eta etzirako. Bihar, zapatua, mendi irteera eta perretxikoen sailkapena egingo dituzte, eta bi hitzaldi izango dira ikastetxean, 18:30ean. Etzirako, domeka, perretxikoen erakusketa eta dastatze irekia antolatu dituzte Herriko plazan, 12:00etan.

► **XV. Mendi Bizikleta ibilaldia** deitu dute etzirako, domeka, Udazken Kulturalaren barne. 09:30ean irtengo dira Herriko plazatik.

OÑATI

► **Elkar Hezi ikastetxeko** ikasleek egindako hirugarren olerki-liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.

► **Oñatiko Gazteak** taldeak batzar irekia deitu du gaurko, egubakoitza, gaztelekuan, 19:30ean. Herriko gazte guztiei parte hartzeko dei egiten diete.

► **EHNA** egiteko eguna deitu dute bihar, zapatua, Foruen plazan, 12:00-14:00. Errolda agiria, nortasun agiri tamainako hiru argazki eta 15 euro behar dira. Edozelan ere, EHNA tramitatzeko bulegoa zabalduko dute hilaren 23an, gaztelekuan.

► **Saja-Nansa (Kantabria)** haranera hiru eguneko irteera antolatu du Aloña Mendik urriaren 30erako. Izenematea zabalik dago. 60 euro da gazteendako, 65 bazkideendako eta 70 gainerakoendako.

► ***Bullying* fenomenoaren gaineko** delako hitzaldia antolatu du Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak eguaztenerako, hilak 20, Beneditarren egoitzan, 19:00etan. Ordu eta erdiko hitzaldia izango da, gaztelaniaz. Herritar guztiek parte har dezakete.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Hondakinekin egindako arropa** erakusketa dago ikusgai Monterronen. Tytti Thusberg Donostian bizi den artista finlandiarrak egindako lanak dira.

OÑATI

► **Margo erakusketa** dago zabalik etzira bitartean kultura etxean, 18:30-20:30. Joan den domekako margo lehiaketako lanak dira.

MUSIKA

ARRASATE

► **Galesko Estella musika taldeak** kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 19:30ean. Nafarroa Oinezen aldeko ekintza da.

► **Kalaña, Matxura eta Deja-Bhu** talde soraluzetarrek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

Ezkontza Azoka
Eibar 2004
Urriaren 23an eta 24an

Non: Armeria Eskolan (Kantoi gasolindegiaren parean)
Ordutegia:
Zapatuan:17:00etatik 21:00etara.
Domekan: 11:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 21:00etara.

Profesionalen erakusketak deskontuekin, dastatzeak, desfilea, opari ederren zozketa, dantza eta lirika saioak.

Sarrera DOHAINIK guztientzako.

Arrasatetik **Foto Bideo Zapping** izango da bertan.

► ERAKUSKETAK

AZUR ARGAZKILARI BERGARARRAREN ERAKUSKETA ZABALDU DUTE

Azur argazkilari bergararrak bere lan aukeratu batzuen erakusketa dauka zabalik egunotan. Hain zuzen, Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatu du erakustaldia, euren egoitzan, tabernaren ondoan, Komenio kalean. *Euskal Txokoak* du izenburua eta egilearen argazkiak biltzen ditu, baina baita berak argazkiokin egindako postal batzuk ere. Hil osoan izango duzue ikusteko aukera. Azurrek Euskal Herriko hainbat txoko bisitatu eta erretratatu ditu bere kamerarekin; batez ere, mendi eta natura paisaiak, baina baita herri eta hiriguneak ere. Bergarako kale eta txoko esanguratsuenetariko asko argazkitan irudikatzea ere gogoko du.

Non: Pol-Polen egoitzan. **Noiz:** urri bukaera arte. **Ordua:** Astelehenetik eguenera, 19:00-21:00; zapatua, 18:00-20:30.

BERGARA

► **Papa Roach** taldeak *Getting away with murder* euren hirugarren diskoa aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 20:00etan. Chronic Future taldeak ere joko du.

► **Txapa Irratiak** 20. programazioa aurkeztuko du. Hori dela eta, jaialdia antolatu dute gaztetxekoek gaurko, egubakoitza, 22:30ean.

► **Muletrain eta Antibiotikos** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Machine Head, God Forbid eta Caliban** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. 20 euro da.

► **Techno jaialdia** antolatu du Jam aretoak biharko, zapatua, 00:30ean.

LEHIAKETAK

BERGARA

